Estatu berriak eta naziorik gabeko kapital finantzario espekulatzailea

Joseba Felix Tobar-Arbulu. Portugalete

Euskal estatua beharrezkoa da. Barnera begira bi buruko munstroari, inflazioari gehi langabeziari, egin beharko dio aurre estatu horrek. Kanpora begira, eta Europar Batasunean kokaturik egonik, kapital espekulatzaileari. James Tobin Nobel saridunak gogora ekarri zuenez, kapital finantzarioa gero eta arinago eta askatasun handiagoz mugitzen da munduan zehar estatuen gainetik, mota guztiko muga estatalak gainditzuz. Ekonomialari amerikarrak zioenez, ekonomia produktiboan kapital horren inbertsioen kopurua, mundu mailako merkatu finantzarioan egindako trukeen zati txikia besterik ez da: finantza-merkatu horretan egunero gauzatzen diren transakzioak 1,5 bilioi dolarren inguruan direla estimatzen da. Eragiketa monetario horien helburua *espekulazioa* izanik, nazioarteko interes-tasa desberdinen arabera mugitzen da kapital espekulatzaile hori. Horrela eginez, moneta ezberdinen truke-tasak espekulazio horien menpe dira, moneten merkatuak desorekatuz, eta noizbehinkako krisi monetarioak sorraraziz, aspaldi honetan nahiko ezaguna den fenomenoa.

Finantza merkatuetan erreserba-moneta gisa erabiltzen diren moneta nazional garrantzitsuen —dolar, yen eta euroa batez ere— arteko truke-tasek etengabeko ezegonkortasuna sorrarazten dute, ezein Banku Zentralek, hots ezein estatuk, ezin duelarik desoreka hori kontrolatu. Alegia, estatu desberdinetako Banku Zentral ezberdinak ez dira gai, edozein dela beraiek politika monetarioa, mugimendu espekulatzaile horiek kontrolatzeko. Horixe da, hain zuzen ere, egungo ekonomiaren *globalizazioa.* Nazioarteko enpresa erraldoiek munduan zehar nonahi inbertitzen eta produzitzen dute. Hori aspaldiko kontu ezaguna da. Berria dena ondokoa da, alegia, nazioarteko kapital espekulatzaile horren funtzionamendua eta eragina. Okerrena hau da, hots, kapital patologiko hori egungo dolar-truke sisteman —edo erreserba moneta gisa beste dibisa desberdinen sisteman—, bere burua elikatuz, handituz doala etengabe. Okerragoa oraindik, kapital hori areagotzen baita herrialde desberdinen kanpo-zorra ordaintzean (Schmitt, B. eta A. Cencini 1991, *External debt servicing. A vicious circle*). Baldintza horietan, ba ote dauka zentzurik euskal estatu bat aldarrikatzea Europar Batasunaren barnean? Baiezkoan gaude. Beharrezkoa da maila politikoan, juridikoan, kulturalean edo eta linguistikoan. Ekonomiaren ikuspuntutik ere nahitaezkoa da, euskal edo eta nafar banku zentral bat eraikitzea nahitaezkoa den moduan.

Nazioarteko 'naziorik gabeko kapital finantzarioak' (NGKF) aparteko kalteak sorrarazten ditu. Egun, bi ekonomia motaren aurrean gaude: alde batetik ekonomia *erreala* daukagu, ondasun eta zerbitzuak ekoizten dituena. Beste aldetik, ekonomia *finantzarioa* dago, berau naziorik gabeko kapital finantzarioaren menpekoa da, gehienetan dolarretan gauzatua (euro-dolarrak, petrodolarrak, ...), dolarra erreserba-moneta bihurtu delako, eta ohiko politika ekonomikoaren bidez kontrolaezina izanik. Oro har, herrialde baten moneta 'ahul' dagoenean, interes-tasaren igotzea dela bide NGKF etor daiteke, baldin eta beraren ustez mozkinak lortzeko baldintzak eta egonkortasuna egokiak badira. Egoera politikoa nahasia baldin bada, NGKF delako horrek, etortzeko, beste edozein lekutan eskaintzen diren baldintzak baino 'hobeak' izan daitezen exijituko du. Horixe da, aspaldian ez dela, nonahi ikusi duguna, interes-tasak beste edozein lekutan baino garaiagoak izanik. Baina NGKF erakartzeko kondizio 'hobe' horiek barneko enpresen inbertsioetarako kaltegarriak dira oso, zeren ekonomia errealerako ez baitu onik batere ekartzen.

Arazoa oso sakona da. Ezagutzen dugun moneten arteko kaos monetarioa lehendabizikoz kaos teorikotik dator, eta moneta 'aktibo neto' gisa onartzen segituko dugun bitartean, noizean behin 'ekaitz monetarioak' eta 'moneten zorabioak' pairatuko ditugu. Horri aurre egiteko, beste moneta teoria bat beharrezkoa zaigu. Teoria berri horrek subiranotasun monetarioa gauza dezake, nahiz eta NGKF delakoak oraingoz zutik dirauen.

NGKF eta demokrazia

Zenbait ikerketa interesgarri egin dira nazio estatu berriei dagokienez. Herrialde baltikoak, Txekia, Eslovakia, lehengo Sobietar Batasunetik atera diren herrialdeak, Jugoslavia ohitik azaldu direnak ikertu dituzten ikerlari desberdinen arabera, berezko moneta nazionala behar-beharrezkoa da. Are gehiago, nazio horietan guztietan, zenbait trantsizio-epe konkretu bat igaro ondoren, berezko moneta martxan ezarri da. (Orain beste arazo bat daukate, alegia, Europar Batasuneko euro-gunean sartzeko bete behar dituzten baldintzei erantzutea. Ikus Rossi, S., 2002, *EMU and EU enlargement: what have we learned?)*. Orain arteko arazoa ondokoa izan da, behin berezko moneta jaulki ondoren, moneta horren funtzionamendua Nazioarteko Moneta Fondoak (NMF) eta Mundu Bankuak ezarritako arauek gidatu dutela, ortodoxiaren barnean. Alde batetik badirudi estatu berri horietako bakoitzak bere moneta edukitzeak nolabaiteko subiranotasun monetarioa suposatzen duela. Alta, kontuan hartzen bada zer-nolako nazioarteko moneten sasi-sisteman gauden, argi dago subiranotasun hori nominala besterik ez dela. Kontua da dolarren menpe segitzen dutela egungo estatu berri horien nazioarteko moneten arteko truke-tasek.

Hortaz, alde batetik, nahiko argi dago moneta nazional berria halabeharrekoa dela, eta berari lotuta dagoen Banku Zentrala eraikitzea, esparru horren barruan ekoizten den guztia ongi neurtzeko, eta inflazioari eta langabeziari aurre egiteko (Schmitt, B., 1984, *Inflation, Chômage et Malformations du Capital*). Baina moneta nazional horren funtzionamendua, nazioarteko mailan, da gaizki dagoena. Moneta nazionala eta Banku Zentrala edukitzea subiranotasun monetariorako beharrezko baldintza da, ez nahikoa. Baldintza nahikoa izateko, kontabilitatean zenbait aldaketa behar dira.(Gure kasuan, nafar edo eta euskal banku zentrala eraikitzean, kontua ez da moneta 'nazional' berri bat jaulkitzea, euro-gunean baikaude. Arazoa, Schmitti jarraituz, kontabilitate modernoaren bidez konpon daiteke). Bistan dago, beraz, ezen independentzia politikoak ez duela suposatzen, halabeharrez, independentzia ekonomikoa. Estonia, Letonia, Lituanian agertu diren arazo ekonomikoak edo Sobietar Batasun ohiaren menpe egon ziren gaurko zenbait errepublika independente berri jasaten ari diren arazo ekonomikoak lekuko. NGKF delakoak asko murrizten ditu demokrazia formaletan harturiko erabakiak. Beraz, demokrazia formala ez da aski NGKF kontrolatzearren. Kontrola gauzatu ahal izateko, nolabaiteko zerga berezia planteatu zuen Tobin ekonomialariak; onenean adabakia izan daitekeena eta zaila martxan jartzeko, bizi garen neoliberalismo gogor honetan. Demokrazia politikoa beste sistema ekonomiko mota bati lotu beharrean gaude. Horretarako, aparteko defizit teorikoan gaude. Hortik irteten laguntzeko, zenbait lan interesgarri agertu dira Schmitt ekonomialariaren eskutik. Kontua, hortaz, ez da soilik nonahi azaltzen den defizit demokratikoa eta soziala orekatzea. Arazoa askoz sakonagoa da.

Banku Zentralak, independenteak ote?

Aspalditik planteatu da 'estatu bat/moneta bat' delako leloa. Lelo horren kontra, historian hamaika eraso sortu dira, azkena oso hedatua den merkatuaren globalizazioa. (Globalizazio mota berri horri aurre egiteko, estatu batzuek zenbait gune monetario eta ekonomiko martxan jarri dute, kasu, Europar Batasuna). Subiranotasuna da eztabaidan dagoen beste kontzeptu bat. Aspaldian subiranoari, maiz erregeari, bazegokion ere —zeinak, moneta dela-eta, jaurgoa (*seigneurage*) jaso baitzuen—, subiranotasuna egun, maila politikoan, nazioari dagokion eskubide demokratiko politikoa da, eta jaurgoa, banku-moneta dela kausa, erabat bazterturik geratu den kontzeptua da, nahiz eta zenbait bazterretan oraingoz erabilia izan. Subiranotasun monetarioa, estatu bat/moneta bat leloak laburbiltzen duena, nahiko berria da: XIX. mendearen bigarren erdikoa hain zuzen ere. Kontua da, banku-monetaren inguruan dagoen teorien hutsunea alde batetik, eta bestetik, oraingoz ortodoxiak daukan indarra, nahasketa ederra sortu dela subiranotasun monetarioari buruzko eztabaidetan.

Lehen esan dugun bezala, globalizazioari aurre egin nahiz, eta dolarraren menpetasuna irten nahirik, zenbait gune ekonomiko eta monetario proposatu dira mundu mailan. Beraien artean Europar

Batasuna, jadanik eraturiko estatuen gainean era aldrebestu batez eraiki dena. Egia da beste modu batez egin zitekeen eraikuntza hori. Baina ortodoxiak, Bundesbank-en etsenpluari jarraituz, banku hori erabat independentea izan dadin nahi du. Ondorio gisa, Europar Batasuneko Banku Zentralaren helburu nagusia inflazioa —ohiko politika kuantitatibisten bitartez— kontrolatzea da. Edozein motatako Banku Zentrala independentea balitz, noren esku geratuko litzateke politika monetarioen zeregina erabakitzea? Independentziaren izenean, erabat hedaturik dagoen pentsamendu ekonomiko neoliberalari bide askea utzi nahi izan zaio, monetarismo gordinaren bidez inflazioa kontrolatu ahal izateko. Horixe da, hain zuzen ere, Europar Batasunean ikusten eta jasotzen ari garena. Gure aldetik, ondokoa esan behar, ozen gainera: beste politika monetario eta ekonomiko bat beharrezkoa da, euskal estatua eraikitzen ahalegintzen garen honetan.